

SURBISAK LEIHATILA BAKARREAN KUDEATUKO DITU NEXT GENERATION FUNTSETATIK DATOZEN LAGUNTZAK, BILBOKO ETXEBIZITZEN ETA ERAIKINEN BIRGAITZE ENERGETIKORAKO

- Eskabideak aurkezteko epea ireki da; eskabideok leihatila bakarrean izapidetuko dira, Hiri Berroneratzearen Sailaren mende dagoen Surbisan.
- Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailak 4 milioi euro inguruko diru-ekarpena egingo du, uriko 670 etxebizitza energetikoki birgaitzeko.
- Laguntza ekonomikoak birgaikuntza energetikorako dira, hiru programaren bidez: etxebizitzak hobetzeko, eraikinak hobetzeko eta eraikinaren liburua egiteko eta higiezinak birgaitzeko proiektuak idazteko.
- Dirulaguntzen helburua da birgaitze energetiko esanguratsu eta kalitatekoa sustatzea, Europako helburuak betetzeko eta sektorean jarduera bultzatzeko.

(Bilbon, 2022ko irailaren 23an).-Bilboko Udalaren Hiri Berroneratzearen Sailaren barruan dagoen Surbisa udal-sozietateak kudeatuko ditu Bilboko etxebizitzaren eta eraikinaren birgaitze energetikorako laguntzak, Next Generation funtsetatik datozenak. Leihatila bakarra izango da Bilbon, eta hórrela Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza Sailaren sarean sartuko da, eraikinaren eta etxebizitzaren energia-birgaitzea sustatzea helburu duten Europako funts horiek kudeatzeko.

“Bilbon lau milioi euro inguruko diru-ekarpena jasoko dugu, 670 etxebizitza energetikoki birgaitzeko. Dirulaguntza horien bidez, trantsizio berdea, deskarbonizazioa, energia-eraginkortasuna eta energia berriztagarrien hedapena bultzatu nahi ditugu, eraikitako parkea birgaitzeko eta hobetzeko jarduketaren bidez” halaxe azaldu du Ivan Calderónek, Bilboko Udaleko Hiri Berroneratzearen zinegotzi eta Surbisako presidentek.

Udal sozietateak hiru programa kudeatuko ditu, eta bilbotarrak programa horietara bildu ahal izango dira: etxebizitzaren hobekuntza energetikoa, eraikinaren hobekuntza energetikoa eta Eraikinaren Liburua egiteko eta/edo eraikinak birgaitzeko proiektu teknikoak idazteko dirulaguntzak.

Bilboko eraikinetan laguntzak jasotzeko baldintzak honako hauek dira: hobekuntza energetikoa lortzeko obrak egitea, energia primario ez-berriztagarriaren kontsumoaren adierazlea gutxienez % 30 murriztuz, esaterako, fatxadetako eta estalkietako isolamendu termikoko obren bidez.

Bestalde, etxebizitzetarako laguntzak eskuratzeko, beharrezkoa da hobekuntza-obrek energia-eskaera gutxienez %7 murriztea eta energia primario ez-berriztagarriaren kontsumoa gutxienez %30 murriztea. Era berean, etxebizitza eskatzailearen ohiko bizileku iraunkorra izatea eta inbertsioa 1.000 eurotik gorakoa izatea.

Bi baldintza horiek betetzen direla frogatzeko, eraginkortasun energetikoaren ziurtagiri bat aurkeztu behar da, eta, gainera, 2022an eta 2023an, Hiria Berroneratzearen Sailak diruz lagunduko ditu, Surbisaren bidez.

Eraikinen birgaitze energetikorako obretarako laguntzak 18.800 eurora artekoak izan daitezke etxebizitzako, jarduketaren kostuaren % 40 eta 80 artekoak izango dira, eta egoera sozial eta ekonomiko zaurgarrian daudenentzat, 23.500 eurora artekoak.

Laguntzak jaso ahal izateko, horrelako obrak 2020ko otsailaren 1erako hasita egon behar dira eta gehienez ere, 2026ko ekainaren 30era arte. Eskabideak aurkezteko epea irekita dago, eta informazioa jaso edo eskaera aurkeztu ahal izango da Surbisaren bulegoetan, betiere honako helbide honetan hitzordua hartu ondoren:

Mail surbisanext@surb.bilbao.eus

Tel: 94-415.99.55

Webgunea: <https://www.euskadi.eus/bizinext/>

ERAIKINEN BIRGAITZE ENERGETIKORAKO NEXT FUNTSAK

Next Generation EU funtsen eta Gobernu Zentralaren Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresiliencia Planaren bidez Euskadin etxebizitzak eta eraikinak energia aldetik zaharberritzeko laguntzek 39,1 milioi euroko aurrekontua dute hasiera batean.

Laguntzak eskatzeko prozesua errazteko, Etxebizitza Sailak Birgaitzeko Bulegoen sare bat sortu du. Bulego horiek leihatila bakar gisa jarduten dute, herritarrek haiengana jo dezaten informazioa eskatzeko eta Next Generation funtsen nahiz Eusko Jaurlaritzaren laguntzen izapideak egiteko. Guztira 16 dira, horietako bat Surbisa. Itzuli beharrik gabeko dirulaguntzak dira; zenbatekoa, berriz, obren bidez lortzen den energia-hobekuntzaren mailaren eta eraikinetako obren kasuan zaurgarritasun-egoeraren arabera da. Amaitzea, energia primarioaren kontsumoan batez beste % 30 edo gehiago aurrezteko.

HIRI BERRONERATZEAREN SAILA ETA SURBISA

Hiri Berroneratzearen Sailak urian esku-hartze integrala gauzatzea sustatzen du; hau da, hiri-, gizarte- eta ingurumen-gaiei erantzuten dieten esku-hartzea. Horrek esan nahi du uria berroneratzeaz gain, beste gai batzuk ere lantzen dituela; hala nola, mugikortasuna, espazio publikoa, ekonomia suspertzea, gizarte-kohesioa, hezkuntza, kultura, enplegua eta abar.

Bestalde, SURBISA udal-sozietate bat da, Bilboko eraikin, etxebizitza eta lokaletan jabeek egin beharreko birgaitze-lanak sustatzen dituen. Udal-sozietateak esku hartzen duen eremuaren barruan daude Zazpi Kaleak, Gurutze auzoa, Bilbo Zaharra, Trenbideko Langileen auzoa, Irala, Olabeaga eta Zazpilanda. Surbisak helburu bi ditu: alde batetik, ondare eraikia segurua, irisgarria eta efizientea izatea eta kalitatezko etxebizitzak eskaintzea, eta, bestetik, bere eragin-eremuetan bizikidetzaz erraztea. Surbisaren jardunaren helburua da bizi-kalitatea bermatzea, jarduera sustatzea, eta urira itzuliko den aberastasun ekonomikoa sortzea.

SURBISA Eusko Jaurlaritzaren kolaboratzailea da Europaren NEXT GENERATION fondo hauetan, eta Bilboko Balioen Agiriko balioak ezartzea sustatzen jarraitzen du, zehazki ingurumenaren jasangarritasunean, konpromisoan eta erantzunkidetasunean, eta osasunean. Modu berean, garapen jasangarriko helburuei buruzko zenbait jarduketa kudeatu nahi dira, hala nola energia-pobreziaren amaiera, osasuna eta ongizatea, ordaintzeko moduko energia eta kutsadura eza, hiri eta komunitate jasangarriak, klimaren aldeko ekintza.